EUSKO JAURLARITZA — GOBIERNO VASCO

**LEHENDAKARITZA**
*Azterlan eta Lege Araubide Zuzendaritza*
*Prospekzio Soziologikoen Kabinetea*

**PRESIDENCIA**
*Dirección de Estudios y Régimen Jurídico*
*Gabinete de Prospección Sociológica*

# Trafikoari buruzko saioa ETBn
# *Espacio televisivo sobre el tráfico en ETB*

**(Herrizaingo Saila)**

***(Departamento de Interior)***

**2006ko martxoa**

***Marzo 2006***

*http://www.euskadi.net/estudios_sociologicos*

# Aurkibidea / *Índice*


SARRERA / *INTRODUCCIÓN* ........ 1

LABURPENA / *SÍNTESIS* ........ 3

TELEBISTA SAIOAREN EZAGUTZA MAILA / *NIVEL DE CONOCIMIENTO DEL ESPACIO TELEVISIVO* ........ 6

TELEBISTA SAIOAREN JARRAIPENAREN MAIZTASUNA / *FRECUENCIA DE SEGUIMIENTO DEL ESPACIO TELEVISIVO* ........ 7

TELEBISTA SAIOA EZ IKUSTEKO ARRAZOIA / *RAZÓN PARA NO VER EL ESPACIO TELEVISIVO* ........ 8

ESKAINITAKO INFORMAZIOAREN ERABILGARRITASUNA / *UTILIDAD DE LA INFORMACIÓN OFRECIDA* ........ 9

ESKAINITAKO INFORMAZIOAREN BEHARRA / *NECESIDAD DE LA INFORMACIÓN OFRECIDA* ........ 10

TELEBISTA SAIOAREN JARRAIPENARI BURUZKO IRITZIA / *OPINIÓN SOBRE EL MANTENIMIENTO DEL ESPACIO TELEVISIVO* ........ 11

ZEHAZTASUN TEKNIKOAK / *FICHA TÉCNICA* ........ 12

# Sarrera / *Introducción*

## Helburuak / *Objetivos*

Txosten honen helburua **EAEko biztanleek ETB1 eta ETB2ren programazioan eskaintzen den trafikoari eta errepideen egoerari buruzko saioaz duten iritzia aztertzea** da, hain zuzen ere, ostiraletan albistegien ondoren eskaintzen den informazioa. Horretarako bi datu mota jaso dira: alde batetik, EAEko biztanleriak telebista saio hori zenbat ezagutu eta ikusten duen neurtu da, baita ere berau ez ikusteko arrazoiak zeintzuk diren; eta beste aldetik, saioan eskainitako informazioaren erabilgarritasuna, beharra eta saioa mantentzeari edo kentzeari buruzko iritziak jaso dira.

El objetivo del presente informe es **analizar la opinión de la población de la CAPV sobre el espacio que ETB1 y ETB2 dedican a informar del estado de las carreteras y el tráfico,** espacio informativo que se emite los viernes después de las noticias. Para ello se han recogido dos tipos de datos: por un lado, se ha medido el conocimiento y el seguimiento que hace la población de la CAPV de ese espacio, así como las razones para no verlo; y, por otro lado, las opiniones sobre la utilidad y la necesidad de la información ofrecida y sobre el mantenimiento o no de dicho espacio.

## Informazio iturria / *Origen de la información*

Lan honetako emaitzak **2006ko otsailean** Euskal Soziometroen bildumaren 30. ikerketan erabilitako galdesortan berariaz sartutako galdera multzo batetik datoz.

Galdera zehatzak **Herrizaingo Sailaren eskaera** baten ondorioz landu dira, Eusko Jaurlaritzaren Lehendakaritzako Prospekzio Soziologikoen Kabinetearekin elkarlanean. Ikerketa honen zehaztasun teknikoetan aipatzen den bezala, galdeketaren diseinurako elkarlan hori eta landa lan zehatza ezik (azken hau kanpoko enpresa bati agindu zaio), beste lan guztiak, bai aurretiazko diseinua, bai azterketa estatistikoa, baita txostenaren idazketa eta edizioa bera ere Prospekzio Soziologikoen Kabineteari dagozkio soilik.

Los resultados de este trabajo proceden de un bloque de preguntas *ad hoc* incluidas en el cuestionario del estudio nº 30 de la serie de Sociómetros Vascos, **realizado en febrero de 2006**.

Las cuestiones concretas planteadas han sido elaboradas a partir de una **petición del Departamento de Interior**, y en colaboración con el Gabinete de Prospección Sociológica de la Presidencia del Gobierno Vasco. Tal y como se menciona en la ficha técnica de esta investigación, exceptuando esta colaboración en el diseño del cuestionario y la realización estricta del trabajo de campo (contratado a una empresa externa), tanto el diseño previo, como el análisis estadístico y la redacción y edición del informe corresponden exclusivamente al Gabinete de Prospección Sociológica.

## Kolektibokako azterketa / *Análisis por colectivos*

Inkestaren datuak biztanleriaren osotasunean ez ezik **segmentazio soziodemografikoen arabera** ere aztertu dira. Segmentaziorako aldagai soziodemografikoak, hau da, inkestako gizarte taldeak esanguratsuki desberdintzen dituzten galderak, taulen zutabeetan aurkezten dira. Ondokoak dira aldagai horiek (sortutako azpitaldeak letra etzanean azaltzen dira):

- Lurraldea: *Araba, Bizkaia, Gipuzkoa.*
- Sexua: *gizonezkoa*, *emakumezkoa*.
- Adin taldeak: 18-29, 30-45, 46-64 eta >=65.

Los datos de la encuesta son analizados, no sólo desde los totales poblacionales, sino también en base a **segmentaciones sociodemográficas**. Las segmentaciones sociodemográficas, esto es, las preguntas en función de las cuales se establecen las diferencias significativas entre los diversos colectivos sociales, se presentan en las columnas. Las variables diferenciadoras consideradas (y los subcolectivos formados, que aparecen en cursiva) son las siguientes:

- Territorio: *Araba*, *Bizkaia*, *Gipuzkoa*.
- Sexo: *varón*, *mujer*.
- Grupos de edad: *18-29*, *30-45*, *46-64 y >=65*.

# Laburpena / *Síntesis*

Ia EAEko herritarren erdiek (%45ek) ezagutzen dute ETB1 eta ETB2n ostiraletan albistegien ondoren errepideen egoerari eta trafikoari buruz eskaintzen den informazio saioa. Pixka bat gehiago dira, alabaina, saio hori ezagutzen ez dutenak (%53).

Saio hori herritarren heren batek ikusten du beti edo ia beti edo batzuetan (%10ek eta %27k, hurrenez hurren) eta aldiz, inoiz edo ia inoiz ikusten ez dutenak soilik %7 dira. Azken hauek ez ikusteko arrazoi nagusitzat honakoak aipatu dituzte: %3k saioa eskaintzen den orduan ez dutela telebistarik ikusten eta beste %3k ez zaiela horrelako informaziorik interesatzen, gainontzeko %1ek ez dakite edo ez dute erantzun.

Saioan eskaintzen den informazioa erabilgarria da %35en ustez eta aldiz, ezer gutxitarako balio duela uste dute %2k. Gainera, %33k gidariei eskainitako informazioa –zuhurtzia, zirkulazio arauekiko errespetua eta abarreko gomendioak– beharrezkoa dela diote eta soilik %4k diote gidariek badakitela zer egin behar duten.

Azkenik, honelako telebista saioen jarraipenaren alde egiten dute beronen ikusleek. Alde batetik, %28 berau dagoen bezala mantentzearen alde agertu da eta beste aldetik, %7 zenbait aldaketa eginda mantentzearen alde (edukiak, formatua, ordutegia eta abar). Aitzitik, %1 soilik agertu da honelako saioak kentzearen alde.

Casi la mitad de las y los ciudadanos de la CAPV conocen el espacio informativo de ETB1 y ETB2 sobre la situación de las carreteras y el tráfico (45%), espacio emitido los viernes tras las noticias. De cualquier manera, son ligeramente más quienes no lo conocen (53%).

Algo más de un tercio de la ciudadanía ve siempre o casi siempre o algunas veces dicho espacio (10% y 27%, respectivamente) y únicamente un7% no lo ven nunca o casi nunca. Estos últimos mencionan las siguientes razones principales para no verlo: un 3% que no ven la televisión a esa hora y otro 3% que no les interesa ese tipo de información, el restante 1% no sabe o no contesta.

La información emitida en el espacio informativo es útil en opinión del 35% y, por el contrario, el 2% considera que sirve para poco. Además, el 33% dice que la información ofrecida a las y los conductores –prudencia, respecto a las normas de circulación y demás consejos- es necesaria y únicamente el 4% dice que las y los conductores ya saben lo que tienen que hacer.

Por último, los espectadores del programa están a favor del mantenimiento de este tipo de programas. Por un lado, el 28% es favorable a mantenerlo tal como están y por otro lado, el 7% es favorable a mantenerlo con algunos cambios (contenidos, formato, horario, etcétera). Por el contrario, solamente el 1% se muestra partidario de eliminar este tipo de espacios.

## Trafikoari buruzko saioa ETBn / *Espacio televisivo sobre el tráfico en ETB*

- Telebista saioaren ezagutza maila / *Nivel de conocimiento del espacio televisivo*
- Telebista saioaren jarraipenaren maiztasuna / *Frecuencia de seguimiento del espacio televisivo*
- Telebista saioa ez ikusteko arrazoia / *Razón para no ver el espacio televisivo*
- Eskainitako informazioaren erabilgarritasuna / *Utilidad de la información ofrecida*
- Eskainitako informazioaren beharra / *Necesidad de la información ofrecida*
- Telebista saioaren jarraipenari buruzko iritzia / *Opinión sobre el mantenimiento del espacio televisivo*

# Telebista saioaren ezagutza maila / *Nivel de conocimiento del espacio televisivo*

(GUZTIZKOAK ETA KOLEKTIBOKA / *TOTALES Y POR COLECTIVOS)*

**ETB1 eta ETB2n ostiraletan, albistegien ondoren, errepideen egoera eta trafikoari buruzko saio bat ematen dute, gidatzeko moduari buruzko aholkuak ere emanez. Bazenuen saio horren berri?** / *ETB1 y ETB2 dedican los viernes, tras las noticias, un espacio a informar del estado de las carreteras y del tráfico, dando consejos sobre cómo conducir. ¿Sabía Ud. de la existencia de este espacio televisivo?*

| | EAE 06 / *CAPV 06* | LURRALDEA / *TERRITORIO* | | | SEXUA / *SEXO* | | ADIN TALDEAK / *GRUPOS DE EDAD* | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | ARABA | BIZKAIA | GIPUZKOA | GIZONEZKOA *VARÓN* | EMAKUMEZKOA *MUJER* | 18-29 | 30-45 | 46-64 | ≥65 |
| BAI / *SÍ* | **45** | 46 | 43 | 48 | 46 | 43 | 43 | 48 | 48 | 38 |
| EZ / *NO* | **53** | 53 | 55 | 51 | 52 | 55 | 56 | 50 | 51 | 60 |
| ED-EE / *NS-NC* | **2** | 1 | 2 | 1 | 2 | 2 | 2 | 2 | 2 | 2 |
| (EHUNEKO BERTIKALAK) /(*PORCENTAJES VERTICALES*) | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 |

☑ 18 urtetik gorako EAEko herritarren artean gehiago dira ETB1 eta ETB2n ostiraletan errepideen egoerari eta trafikoari eskainitako saioa badela ezagutzen ez dutenak (%53) ezagutzen dutenak baino (%45). Gainontzeko %2k ez dakite edo ez dute erantzun.

☑ Gipuzkoarrak eta, 30 eta 64 urte artekoak dira saio hori gehien ezagutzen dutenak.

☑ Entre la población de la CAPV mayor de 18 años son más quienes no conocen el espacio que ETB1 y ETB2 emiten sobre la situación de las carreteras y el tráfico (53%) que quienes lo conocen (45%). El restante 2% no sabe o no contesta.

☑ Quienes más conocen dicho espacio son las y los guipuzcoanos y quienes tienen entre 30-64 años.

# Telebista saioaren jarraipenaren maiztasuna / *Frecuencia de seguimiento del espacio televisivo*

(GUZTIZKOAK ETA KOLEKTIBOKA / *TOTALES Y POR COLECTIVOS*)

**Programa hori zuk zenbatero ikusten duzu, beti edo ia beti, batzuetan edo inoiz edo ia inoiz ez?** / *Dígame, por favor, ¿ve Ud. este espacio siempre o casi siempre, algunas veces, o no lo ve nunca o casi nunca?**

| | EAE 06 / *CAPV 06* | LURRALDEA / *TERRITORIO* | | | SEXUA / *SEXO* | | ADIN TALDEAK / *GRUPOS DE EDAD* | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | ARABA | BIZKAIA | GIPUZKOA | GIZONEZKOA / VARÓN | EMAKUMEZKOA / MUJER | 18-29 | 30-45 | 46-64 | ≥65 |
| BETI EDO IA BETI / *SIEMPRE O CASI SIEMPRE* | 10 | 9 | 11 | 9 | 11 | 10 | 6 | 10 | 12 | 12 |
| BATZUETAN / *ALGUNAS VECES* | 27 | 27 | 26 | 31 | 29 | 26 | 26 | 31 | 30 | 20 |
| INOIZ EZ EDO IA INOIZ EZ / *NUNCA O CASI NUNCA* | 7 | 10 | 6 | 8 | 7 | 7 | 11 | 8 | 6 | 5 |
| ED-EE / *NS-NC* | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 |
| GAINERAKOAK / *RESTO* | 55 | 54 | 57 | 52 | 54 | 57 | 57 | 52 | 52 | 62 |
| (EHUNEKO BERTIKALAK) /*(PORCENTAJES VERTICALES)* | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 |

* GALDERA HAU EGIN ZAIE BAKARRIK SAIOA BADELA EZAGUTZEN DUTENEI. / *PREGUNTA REALIZADA ÚNICAMENTE A QUIENES CONOCEN EL PROGRAMA.*

☑ ETBn errepideen eta trafikoaren egoerari buruz eskaintzen den saioa beti edo ia beti ikusten dute herritarren %10ek, batzuetan %27k eta inoiz edo ia inoiz ez %7k. Gainontzeko %55ek ez dakite horrelako saiorik badenik ere

☑ Saioaren jarraipenaren maiztasunari dagokionez taldeen artean ez dago alde handirik. Alabaina, 30 eta 64 urte artekoek besteek baino maiztasun handixeagoz (beti edo ia beti edota batzuetan) jarraitzen dute informazio hau.

☑ Un 10% de la población ve siempre o casi siempre el espacio que ofrecen en ETB sobre la situación de las carreteras y el tráfico, un 27% algunas veces y otro 7% nunca o casi nunca. El restante 55% ni siquiera conoce la existencia de dicho programa.

☑ No hay grandes diferencias entre los colectivos respecto a la frecuencia de seguimiento del espacio televisivo. De cualquier manera, quienes tienen entre 30 y 64 años siguen esta información con una ligera mayor frecuencia (siempre o casi siempre o algunas veces).

# Telebista saioa ez ikusteko arrazoia / *Razón para no ver el espacio televisivo*

(GUZTIZKOAK ETA KOLEKTIBOKA / *TOTALES Y POR COLECTIVOS*)

**Nagusiki zergatik ez duzu saio hori inoiz edo ia inoiz ikusten?** / *¿Me podría decir cuál es la razón principal por la que no lo ve nunca o casi nunca?**

| | EAE 06 / *CAPV 06* | LURRALDEA / *TERRITORIO* | | | SEXUA / *SEXO* | | ADIN TALDEAK / *GRUPOS DE EDAD* | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | ARABA | BIZKAIA | GIPUZKOA | GIZONEZKOA / VARÓN | EMAKUMEZKOA / MUJER | 18-29 | 30-45 | 46-64 | ≥65 |
| EZ DUDALAKO ETB1 EZ ETB2 IKUSTEN / *PORQUE NO VEO ETB1 NI ETB2* | 0 | 1 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 1 | 0 | 0 |
| EZ DUDALAKO TELEBISTA IKUSTEN ORDU HORRETAN / *PORQUE NO VEO LA TELEVISIÓN A ESA HORA* | 3 | 4 | 2 | 3 | 3 | 3 | 4 | 4 | 2 | 1 |
| EZ ZAIDALAKO HALAKO INFORMAZIOA INTERESATZEN / *PORQUE NO ME INTERESA ESE TIPO DE INFORMACIÓN* | 3 | 3 | 3 | 4 | 3 | 3 | 6 | 2 | 2 | 3 |
| BESTE ARRAZOI BATZUENGATIK / *OTRAS* | 0 | 1 | 0 | 1 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 1 |
| ED-EE / *NS-NC* | 1 | 0 | 0 | 1 | 1 | 0 | 0 | 1 | 1 | 0 |
| GAINERAKOAK / *RESTO* | 93 | 90 | 94 | 92 | 93 | 93 | 89 | 92 | 94 | 95 |
| (EHUNEKO BERTIKALAK) /*(PORCENTAJES VERTICALES)* | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 |

*GALDERA HAU SOILIK SAIOA EZAGUTU ETA IKUSTEN EZ DUTENEI EGIN ZAIE. / *PREGUNTA REALIZADA ÚNICAMENTE A QUIENES CONOCEN Y NO VEN ESTE ESPACIO.*

☑ Errepideen egoerari eta trafikoari buruzko saioa inoiz edo ia inoiz ikusten ez dutenek (herritarren %7) ondorengoak aipatu dituzte ez ikusteko arrazoi nagusi gisa: %3k saioa eskaintzen den orduan ez dutela telebistarik ikusten eta beste %3k ez zaielako horrelako informaziorik interesatzen.

☑ Adin talde gazteenak (18-29 urte artekoak) besteek baino gehiago aipatu du saioak eskaintzen duen motako informazioa ez zaiela interesatzen, soilik %6 diren arren

☑ La ciudadanía que no ve nunca o casi nunca (7% de la población) el espacio sobre la situación de las carreteras y el tráfico ofrece las siguientes razones principales para no hacerlo: un 3% porque no ve la televisión a esa hora y otro 3% porque no le interesa ese tipo de información.

☑ El grupo de edad más joven (18-29 años) ha mencionado más que el resto que no les interesa el tipo de información que ofrece dicho espacio, aunque son únicamente un 6%.

# Eskainitako informazioaren erabilgarritasuna / *Utilidad de la información ofrecida*

(GUZTIZKOAK ETA KOLEKTIBOKA / *TOTALES Y POR COLECTIVOS)*

**Zer uste duzu, saio horretan ematen den informazioa erabilgarria dela gidarientzat ala ezer gutxitarako balio duela?** / *¿Le parece a Ud. que la información que se ofrece es de utilidad para los conductores y las conductoras o por el contrario que sirve para poco? **

| | EAE 06 *CAPV 06* | LURRALDEA / *TERRITORIO* | | | SEXUA / *SEXO* | | ADIN TALDEAK / *GRUPOS DE EDAD* | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | ARABA | BIZKAIA | GIPUZKOA | GIZONEZKOA *VARÓN* | EMAKUMEZKOA *MUJER* | 18-29 | 30-45 | 46-64 | ≥65 |
| EMATEN DEN INFORMAZIOA ERABILGARRIA DELA / *LA INFORMACIÓN QUE SE OFRECE ES DE UTILIDAD* | 35 | 33 | 34 | 38 | 36 | 34 | 30 | 38 | 39 | 31 |
| EZER GUTXITARAKO BALIO DUELA / *SIRVE PARA POCO* | 2 | 2 | 2 | 2 | 2 | 1 | 2 | 2 | 2 | 1 |
| ED-EE / *NS-NC* | 0 | 0 | 1 | 0 | 1 | 0 | 0 | 1 | 0 | 0 |
| GAINERAKOAK / *RESTO* | 62 | 65 | 63 | 60 | 61 | 64 | 68 | 59 | 58 | 68 |
| (EHUNEKO BERTIKALAK) /*(PORCENTAJES VERTICALES)* | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 |

*GALDERA HAU SOILIK SAIOA EZAGUTU ETA IKUSTEN DUTENEI EGIN ZAIE. / *PREGUNTA REALIZADA ÚNICAMENTE A QUIENES CONOCEN Y VEN ESTE ESPACIO.*

☑ Herritarren %35ek uste dute saioan ematen den informazioa erabilgarria dela eta soilik %2k ezer gutxitarako balio duela. Gainontzeko multzoa (%62) saio badela ezagutzen ez dutenek edo inoiz edo ia inoiz ikusten ez dutenek osatzen dute.

☑ Gipuzkoarrek eta, 30 eta 64 urte artekoek besteek baino gehiago uste dute saioan eskainitako informazioa erabilgarria dela.

☑ El 35% de la población considera que la información que ofrece el espacio es de utilidad para los conductores y conductoras y únicamente el 2% considera que sirve para poco. El colectivo restante (62%) son quienes no conocen la existencia del programa o no lo ven nunca o casi nunca.

☑ Las y los guipuzcoanos y, quienes tienen entre 30 y 64 años consideran más que el resto que la información ofrecida en ese espacio es útil.

# Eskainitako informazioaren beharra / *Necesidad de la información ofrecida*

(GUZTIZKOAK ETA KOLEKTIBOKA / *TOTALES Y POR COLECTIVOS)*

**Eta gidariei zuhurtzia (prudentzia), zirkulazioa arauekiko errespetua eta abar gomendatzea, zure ustez beharrezkoa da ala gidariek badakite zer egin behar duten?** / *Y el recomendar prudencia, respeto a las normas de circulación, etc.¿cree que es necesario o que los conductores y conductoras ya saben lo que tienen que hacer?**

| | EAE 06 *CAPV 06* | LURRALDEA / *TERRITORIO* | | | SEXUA / *SEXO* | | ADIN TALDEAK / *GRUPOS DE EDAD* | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | ARABA | BIZKAIA | GIPUZKOA | GIZONEZKOA VARÓN | EMAKUMEZKOA MUJER | 18-29 | 30-45 | 46-64 | ≥65 |
| BEHARREZKOA DA ZUHURTZIA, ZIRKULAZIO ARAUEKIKO ERRESPETUA ETA ABAR GOMENDATZEA / *ES NECESARIO RECOMENDAR PRUDENCIA, RESPETO A LAS NORMAS DE CIRCULACIÓN ETC…* | 33 | 32 | 31 | 36 | 34 | 31 | 26 | 36 | 38 | 28 |
| GIDARIEK BADAKITE ZER EGIN BEHAR DUTEN / *LOS CONDUCTORES Y CONDUCTORAS YA SABEN LO QUE TIENEN QUE HACER* | 4 | 3 | 4 | 3 | 4 | 4 | 4 | 4 | 3 | 3 |
| ED-EE / *NS-NC* | 1 | 0 | 1 | 1 | 1 | 1 | 1 | 0 | 1 | 1 |
| GAINERAKOAK / *RESTO* | 62 | 65 | 63 | 60 | 61 | 64 | 68 | 59 | 58 | 68 |
| (EHUNEKO BERTIKALAK) /*(PORCENTAJES VERTICALES)* | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 |

*GALDERA HAU SOILIK SAIOA EZAGUTU ETA IKUSTEN DUTENEI EGIN ZAIE. / *PREGUNTA REALIZADA ÚNICAMENTE A QUIENES CONOCEN Y VEN ESTE ESPACIO.*

☑ Herritarren %33ren ustez beharrezkoa da saioak gidariei eskainitako informazioa -zuhurtzia, zirkulazio arauekiko errespetua eta bestelako gomendioak- eta soilik %4k diote gidariek badakitela zer egin behar duten. Gainontzeko %62k ez dute ezagutzen saioa badela edo inoiz edo ia inoiz ez dute saio hori ikusten.

☑ Gipuzkoarrek eta 30 eta 64 urte artekoek besteek baino beharrezkoago ikusten dute gidariei gomendioak ematea.

☑ En opinión del 33% de las y los ciudadanos es necesaria la información ofrecida a las y los conductores en el programa –prudencia, respecto a las normas de circulación y otro tipo de consejos– y únicamente un 4% dice que las y los conductores saben lo que tienen que hacer. El restante 62% no conocen la existencia del espacio o no lo ven (casi) nunca.

☑ Las y los guipuzcoanos y, quienes tienen entre 30 y 64 años consideran más necesario dar recomendaciones a las y los conductores.

# Telebista saioaren jarraipenari buruzko iritzia / *Opinión sobre el mantenimiento del espacio televisivo*

(GUZTIZKOAK ETA KOLEKTIBOKA / *TOTALES Y POR COLECTIVOS)*

**Honelako telebistako saioei buruz zuk zer nahiago zenuke, programaziotik kentzea, dauden bezala mantentzea, edo mantendu bai baina edukiak, formatoa, ordutegia eta abar aldatuta?** / *Respecto a este tipo de espacios, Ud. ¿sería partidario/a de eliminarlos, de mantenerlos como están, o mantenerlos pero con otros contenidos, cambiando de forma, horario, etc.? **

| | EAE 06 / *CAPV 06* | LURRALDEA / *TERRITORIO* | | | SEXUA / *SEXO* | | ADIN TALDEAK / *GRUPOS DE EDAD* | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | ARABA | BIZKAIA | GIPUZKOA | GIZONEZKOA / VARÓN | EMAKUMEZKOA / MUJER | 18-29 | 30-45 | 46-64 | ≥65 |
| KENTZEA / *ELIMINARLOS* | 1 | 0 | 1 | 1 | 1 | 1 | 1 | 1 | 1 | 1 |
| DAUDEN BEZALA MANTENTZEA / *MANTENERLOS COMO ESTÁN* | 28 | 26 | 28 | 27 | 29 | 27 | 24 | 30 | 31 | 24 |
| MANTENTZEA BAINA EDUKIAK, FORMATOA, ORDUTEGIA ETA ABAR ALDATUTA / *MANTENERLOS PERO CAMBIANDO LOS CONTENIDOS, LA FORMA, EL HORARIO ETC…* | 7 | 8 | 6 | 10 | 8 | 7 | 6 | 9 | 8 | 5 |
| ED-EE / *NS-NC* | 1 | 1 | 1 | 2 | 2 | 1 | 1 | 1 | 2 | 2 |
| GAINERAKOAK / *RESTO* | 62 | 65 | 63 | 60 | 61 | 64 | 68 | 59 | 58 | 68 |
| (EHUNEKO BERTIKALAK) /*(PORCENTAJES VERTICALES)* | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 |

*GALDERA HAU SOILIK SAIOA EZAGUTU ETA IKUSTEN DUTENEI EGIN ZAIE. / *PREGUNTA REALIZADA ÚNICAMENTE A QUIENES CONOCEN Y VEN ESTE ESPACIO.*

☑ Jendearen %35ek dio honelako telebista saioak mantentzea nahiago duela, bi multzotan banaturik: gehienak (%28) dauden bezala mantentzearen aldekoak dira eta %7 edukiak, formatua, ordutegia eta abar aldatuta mantentzearen aldekoak dira. Soilik %1ek aipatzen dute kentzea nahiago dutela. Gainontzeko %62k ez dakite saio hori badela edo ez dute inoiz edo ia inoiz ikusten.

☑ 30 eta 64 urte artekoek besteek baino nahiago dute era honetako saioak dauden bezala mantentzea eta gipuzkoarrek apur bat nahiago dute zerbait aldatuz mantentzea.

☑ El 35% de la gente afirma que prefiere que se mantengan este tipo de espacios, los cuales se dividen así: la mayoría (28%) prefiere mantenerlos como están y el 7% prefiere mantenerlos pero cambiando los contenidos, el formato, el horario, etcétera. Únicamente el 1% menciona que prefiere eliminarlos. El restante 62% no conocen la existencia de ese espacio o no lo ven nunca o casi nunca.

☑ Quienes tienen entre 30 y 64 años prefieren en mayor medida que el resto que este tipo de espacios se mantengan tal como están y las y los guipuzcoanos muestran ligera mayor preferencia por mantenerlos con algunos cambios.

# Zehaztasun teknikoak / *Ficha técnica*

Informazio bilketa **2006ko otsailaren 2tik 20ra bitartean** egin zen –biak barne- galdesorta egituratu eta itxia erabiliz, Euskal Autonomia Erkidegoko (EAEko) hiru lurraldeetarako lagin adierazgarri bati etxean egindako banakako elkarrizketen bidez.

**Lagina**, 18 urte edo gehiagoko biztanleriari zuzendua, honela banatu zen: 612 pertsona Araban, 1278 Bizkaian eta 982 Gipuzkoan, beraz, 2872 pertsona elkarrizketatu ziren guztira. Gizabanakoen hautaketa prozedura polietapiko eta estratifikatuaren bidez egin zen, ausazko ibilbideak erabiliz –214 laginketa abiapunturekin[1] -, ondoren pertsonak sexuaren, adinaren eta lan egoeraren araberako kuoten bidez aukeratuz. Emaitzak hiru lurraldeetako biztanleria zentsuaren eta 2005eko Eusko Legebiltzarrerako Hauteskundeetako boto oroimenaren arabera haztatu dira.

Ikerketaren **diseinua,** emaitzen **azterketa eta txostenaren idazketa** Prospekzio Soziologikoen Kabineteari dagozkio soilik. Bestalde, informazio bilketa Lurra eraikina, Txingurri pasealekua 28-30, 2, 20017 Donostia helbidean dagoen *Ikertalde* enpresak egin zuen.

2872 pertsonako lagin honi dagokion **lagin errorearen** estimazioa, erabat ausazkoak diren laginketei egozgarria, ±%1,87koa da EAE osorako, %95,5eko konfiantza mailarako, p=q=0,5 izanik.

Inkesten %59 telefono bidez **kontrolatu** egin dira eta %5,1 berriz, etxean bertan. Horrez gain, jasotako galdetegi guztietan kontrol informatiko egokiak egin dira –logika, koherentzia eta heinari buruzkoak-.

Datuen **fidagarritasuna eta baliotasuna** bermatua dago, bai Euskal Autonomia Erkidegorako (EAErako), baita lurralde bakoitzerako ere, lagin adierazgarri egokia erabiliz eta inkestaren azken emaitzen eta argitaratutako beste kanpo erreferentzia objektibo batzuen arteko desberdintasunen ebaluazioa eginez, azken hau beti ere, datu alderagarriak dauden kasuetan. Zehatzago, ondoko aldagaiei buruz ari gara: batetik 2005eko Eusko Legebiltzarrerako Hauteskundeetako botoaren banaketa erreala eta bestetik adina, sexua, ikasketa maila, lan egoera eta euskararen ezagutza mailari buruzko datu ofizialak.

[1] Hasiera puntu fisiko zehatza ausaz lortu zen hauteskunde sekzio bakoitzeko kale "zatien" multzoen artean (azterketarako unitate geografiko txikiena), Eustatek egindako kale izendegien arabera.

La recogida de información se realizó entre **el 2 y el 20 de febrero de 2006** -ambos inclusive- a través de entrevista individual mediante cuestionario estructurado y cerrado, realizada a domicilio a una muestra representativa de la población de cada uno de los Territorios Históricos de la Comunidad Autónoma del País Vasco (CAPV).

La **muestra**, dirigida a una población de 18 y más años, se distribuyó del siguiente modo: 612 personas en Araba, 1278 en Bizkaia y 982 en Gipuzkoa, lo que supone un total de 2872 personas entrevistadas. La selección se realizó por procedimiento polietápico y estratificado, siguiendo rutas aleatorias -a partir de un total de 214 puntos de muestreo[1] - y con selección de los individuos por cuotas de sexo, edad y situación laboral, siendo posteriormente ponderados los resultados en base a la población y al recuerdo de voto en las Elecciones al Parlamento Vasco de 2005, en cada uno de los tres Territorios.

El **diseño** de la investigación, el **análisis** de los resultados y la **redacción del informe** es responsabilidad exclusiva del Gabinete de Prospección Sociológica. La recogida de información fue realizada por la empresa *Ikertalde,* sita en el edificio Lurra, Paseo Txingurri 28-30, 2, 20017, Donostia-San Sebastián.

El **error muestral** correspondiente a esta muestra de 2872 individuos, y atribuible en el caso teórico de que la muestra hubiera sido estrictamente aleatoria, se cifra en un ±1,87% para el conjunto de la CAPV, con un nivel de confianza de 95,5% y p=q=0,5.

Se ha llevado a cabo **un control telefónico** del 59% de las encuestas y un control domiciliario del 5,1% de las mismas. Asimismo, se han realizado todos los controles informáticos pertinentes -lógicos, de coherencia y de rango- en cada uno de los cuestionarios recogidos.

La **fiabilidad y validez** de los datos queda garantizada en base al empleo de una muestra adecuadamente representativa, tanto para el conjunto de la Comunidad Autónoma del País Vasco (CAPV) como para cada uno de los tres Territorios Históricos, así como mediante la evaluación de las diferencias entre los resultados finales de la encuesta con otras referencias externas objetivas publicadas, siempre que existen datos contrastables. Nos referimos, concretamente, a la distribución oficial real de voto en las Elecciones al Parlamento Vasco de 2005 y a las cifras oficiales de edad, sexo, nivel de estudios, situación laboral y nivel de euskaldunización.

[1] El lugar físico concreto de inicio se obtuvo aleatoriamente del conjunto de "tramos" de calles incluidos en cada sección electoral (unidad geográfica mínima de análisis), según los callejeros elaborados por el Eustat.